Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko martxoaren 30a, osteguna — 62 — Jueves, a 30 de marzo de 2023

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## TOLOSAKO UDALA

*Iragarkia*

Tolosako Udalbatzak 2022ko ekainaren 30ean egindako Ohiko Osoko Bilkuran, hasierako onarpena eman zion bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakuslekuak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen ordenantzari.

Ordenantza hau hogeita hamar laneguneko epean jendaurrean jarri zen, 2022ko uztailaren 21ean Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako iragarkiaren bidez, eta epealdi honetan hiru alegazio idatzi aurkeztu ziren.

Tolosako Udalbatzak 2023ko martxoaren 2an egindako Ohiko Osoko Bilkuran, erabaki zuen bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakuslekuak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen ordenantzaren hasierako onespenari jendaurreko aldian aurkeztutako alegazioak ebaztea, Kontuhartzailetzak proposaturako aldaketa eta akats zuzenketa onartzea, eta ordenantza behin betikoz onartzea.

Beraz, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legea, iragarki honetan eranskin gisa argitaratzen da ordenantzaren testu osoa, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN testu osoa argitaratu arte ez dela indarrean sartuko aipatuz.

Akordio honen aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu administrazio-bidean.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Tolosa, 2023ko martxoaren 16a.—Olatz Peon Ormazabal, alkatea. (2052)

*Bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakuslekuak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen Ordenantza.*

I. titulua. Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Helburua eta aplikazio eremua.

2. artikulua. Jartzeko baldintzak.

3. artikulua. Definizioa.

4. artikulua. Parametro eta tipologia anitzak.

5. artikulua. Aurrez lizentzia lortu beharra.

II. titulua. Terrazak jartzea.

6. artikulua. Terrazak jar daitezkeen espazioen izaera eta baldintza orokorrak.

7. artikulua. Irisgarritasun eta zirkulazio baldintzak.

8. artikulua. Lizentzia ukatzeko arrazoiak.

9. artikulua. Ibilgailuak dabiltzan kaleetako espaloietan jarritako instalazioak.

## AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión ordinaria celebrada el día 30 de junio de 2022, aprobó inicialmente la ordenanza reguladora de la instalación en la vía pública de terrazas, expositores de productos de venta y otros elementos auxiliares.

La presente Ordenanza fue sometida a información pública durante un plazo de treinta días hábiles mediante anuncio publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el 21 de julio de 2022, habiéndose presentado en este periodo tres alegaciones por escrito.

El Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión ordinaria celebrada el día 2 de marzo de 2023, acordó la resolución de las alegaciónes presentadas durante el periodo de información pública de la aprobación inicial de la ordenanza reguladora de la instalación en la vía pública de terrazas, expositores de productos de venta y otros elementos auxiliares, la aprobación de la modificación y corrección de errores propuestos por Intervención, y la aprobación definitiva de la ordenanza.

De hecho, de conformidad con lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, en el presente anuncio se publica como anexo el texto íntegro de la Ordenanza, con indicación de que no entrará en vigor hasta la publicación del texto íntegro en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Contra el presente Acuerdo, no cabe recurso en vía administrativa.

No obstante, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación.

Tolosa, a 16 de marzo de 2023.—La alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal. (2052)

*Ordenanza reguladora de la instalación en la vía pública de terrazas, expositores de productos de venta y otros elementos auxiliares*

Título I. Disposiciones generales.

Artículo 1. Objeto y ámbito de aplicación.

Artículo 2. Condiciones de instalación.

Artículo 3. Definición.

Artículo 4. Diversos parámetros y tipologías.

Artículo 5. Necesidad de obtención de previa licencia.

Título II. Instalación de terrazas.

Artículo 6. Carácter de los espacios en que se posibilita la instalación y condiciones generales.

Artículo 7. Condiciones de accesibilidad y circulación.

Artículo 8. Motivos de denegación de la licencia.

Artículo 9. Instalaciones en aceras de calles con circulación rodada.

EK\CV GAO-I-2023-02052

10. artikulua. Oinezkoen kaleetako instalazioak.

11. artikulua. Plaza eta espazio libreetako instalazioak.

12. artikulua. Aparkaleku eremuetako instalazioak.

13. artikulua. Toldoak.

14. artikulua. Alboetako babesak (manparak, haize-babesak, jardinerak...).

15. artikulua. Estufa edo berogailuak.

16. artikulua. Terrazaren ezaugarri teknikoak eta kokapenaren ezaugarriak.

III. titulua. Salgai dauden produktuen erakuslekuak jartzea.

17. artikulua. Salgai dauden produktuen erakuslekuen ezaugarri teknikoak.

18. artikulua. Merkataritza-jardueren elementu osagarrien ezaugarriak.

IV. titulua. Lizentziak izapidetzea eta kudeatzea.

19. artikulua. Lizentzia eskatzea.

20. artikulua. Ebazpena.

21. artikulua. Lizentziaren baldintzak.

22. artikulua. Tasa eta fidantza.

23. artikulua. Iraupena eta indarraldia.

24. artikulua. Ordutegia.

25. artikulua. Instalazioa kentzea.

26. artikulua. Instalazioaren titularraren betekizunak.

27. artikulua. Etengabeko ikuskaritza eta erantzun administratiboa Ordenantzaren aurkako ekintzen aurrean.

28. artikulua. Errekerimendua, behin-behineko neurriak eta segurtasun-neurriak.

29. artikulua. Betearazpen-neurriak.

30. artikulua. Arau-hausteak.

31. artikulua. Zigorrak.

32. artikulua. Udalaren baimenik gabeko instalazioak.

33. artikulua. Betearazte subsidiarioa.

34. artikulua. Baimenen iraungitzea.

Xedapen gehigarria.

Xedapen iragankorrak.

Amaierako xedapenak.

Eranskin grafikoak.

## I. TITULUA

## XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Helburua eta aplikazio eremua.*

1.1. Bide publikoan eta jabari pribatuko lurzoruetan, Ordenantza honetan adierazten diren baldintzetan, ostalaritza eta merkataritza saltokien jarduera osatzen duten aire zabaleko elementu hauek jartzeko araubide teknikoa eta juridikoa ezartzea da Ordenantza honetako aurreikuspenen helburua:

— Terrazak eta instalazio osagarriak, hala nola eguzkitakoak eta toldoak.

— Salgai dauden produktuen erakuslekuak.

— Beste elementu osagarri batzuk.

Hori guztia, arloan indarrean dauden legezko xedapenetan ezarritakoaren arabera, indarrean den Hirigintza-plangintza barne.

Artículo 10. Instalaciones en calles peatonales.

Artículo 11. Instalaciones en plazas y espacios libres.

Artículo 12. Instalaciones en zonas de aparcamiento.

Artículo 13. Toldos.

Artículo 14. Protecciones laterales (mamparas, paravientos, jardineras, etc.).

Artículo 15. Estufas o calefactores.

Artículo 16. Características técnicas y de emplazamiento de la terraza.

Título III. Instalación de expositores de venta.

Artículo 17. Características técnicas de los expositores de venta.

Artículo 18. Características de los elementos auxiliares de las actividades comerciales.

Título IV. Tramitación y gestión de licencias.

Artículo 19. Solicitud de licencia.

Artículo 20. Resolución.

Artículo 21. Condiciones de la licencia.

Artículo 22. Tasa y fianza.

Artículo 23. Duración y vigencia.

Artículo 24. Horario.

Artículo 25. Retirada de la instalación.

Artículo 26. Obligaciones de la persona titular de la instalación.

Artículo 27. Sujeción a inspección permanente y reacción administrativa ante actuaciones contrarias a la Ordenanza.

Artículo 28. Requerimiento, medidas provisionales y de seguridad.

Artículo 29. Medidas de ejecución.

Artículo 30. Infracciones.

Artículo 31. Sanciones.

Artículo 32. Instalaciones sin licencia municipal.

Artículo 33. Ejecución subsidiaria.

Artículo 34. Extinción de las autorizaciones.

Disposición adicional.

Disposiciones transitorias.

Disposiciones finales.

Anexos gráficos.

## TÍTULO I

## DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Objeto y ámbito de aplicación.*

1.1. El objetivo de las previsiones de esta Ordenanza es el de establecer el régimen técnico y jurídico para la instalación en la vía pública y en suelos de dominio privado, en las condiciones que se indican en esta Ordenanza, de los siguientes elementos ubicados al aire libre que constituyan complemento de la actividad que se viene ejerciendo en establecimientos de hostelería y comercio:

— Terrazas e instalaciones complementarias, tales como parasoles y toldos.

— Expositores de productos de venta.

— Otros elementos auxiliares.

Todo ello de conformidad con lo establecido en las disposiciones legales vigentes en la materia, incluido el planeamiento urbanístico vigente.

EK\CV GAO-I-2023-02052

1.2. Ordenantza hau aplikagarria izango da erabilera publikoko espazio guztietan (kaleak, plazak, barruko patioak, esparru libreak, eremu berdeak...), jabari publikokoak edo pribatukoak izan, baita publikoari irekita dauden espazio pribatuetan ere. Hortaz, hauetan aplikatuko da:

a) Erabilera eta jabari publikoa duten lursailetan jartzen diren terrazak edo Ordenantzan adierazten diren beste elementu batzuk.

b) Jabari pribatuko espazioetan jartzen diren terrazak edo Ordenantzan adierazten diren beste elementu batzuk, erabilera publikorako mugarik ez duten esparru irekietan jartzen direnak, horien jarduerak modu zuzenean eragiten badio espazio publikoari, edo alboan badaude; eta erabilera publikoa duten jabari pribatuko espazioetan kokatuta dauden terrazak edo Ordenantzan adierazten diren beste elementu batzuk.

Alboko itxitura eta/edo itxitura bertikaleko elementuak izanagatik ere, esparru irekitzat hartuko dira ondorio hauetarako.

c) Pasatzeko eta erabilera publikorako mugak dituzten jabari pribatuko espazioen barruan (hala nola barruko patioak, merkataritza-saltokiak edo esparru estaliak, publikoaren sarbidea mugatuta duten ostalaritza-jarduera bati lotuak) kokatutako ostalaritza-saltoki publikoei erantsitako terrazak edo Ordenantza honetan adierazten diren beste elementu batzuk. Terraza mota horiek ingurumeneko ondorioak dituzten jarduerak arautzen dituen araudiaren baldintzak bete beharko dituzte, baita parte diren saltokiari dagozkion arauak ere, bereziki, honako hauek: segurtasuna, edukiera eta saltoki mota hauen ingurumeneko ondorioak arautzen dituztenak, eta, Ordenantza honetan arautuakoarekin lotuta, eragiten dieten berariazko baldintzak, eta Ordenantzan berariaz adierazten direnak.

Terraza hauek honakoen mende egongo dira: jarduera nagusia gauzatzeko lizentzian edo dagoen esparruaren lizentzian finkatutako baldintzak; berariaz aplikatzekoak diren Ordenantza honetako xedapenak eta horien berariazko habilitazio-tituluak; Hirigintzako arauak; eta dagokion jardueraren berariazko beste arau batzuk.

*2. artikulua. Jartzeko baldintzak.*

2.1. Honako hauek emandako ahalmenari jarraikiz ematen da Ordenantza hau: Toki Araubidearen Oinarriei buruzko 1985eko Legearen 49. eta 84. bis1.a) artikuluak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Toki Erakundeen Ondareari buruzko 1986ko azaroaren 3ko 1373/2009 Errege Dekretua, Toki Araubideari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena, eta Toki Erakundeen Ondareei buruzko 1986ko Erregelamenduaren 77. artikulua, eta Toki Erakundeen Ondareei buruzko Erregelamendua.

Orokorrean, bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakuslekuak eta beste elementu osagarri batzuk jartzeko araudia aurrez aipatu ditugun xedapenetan eta honako hauetan ezarritako aurreikuspenetara egokituko da:

a) Arloan indarrean dauden legezko xedapenak, orokorrak eta berariazkoak. Ordenantza hauek formulatzean indarrean ziren legezko xedapenen artean hauek aipa daitezke, alde batera utzi gabe haien eguneratzeak, moldaketak, indargabetzeak eta aurrerago onartutako xedapen berriak, eta alde batera utzi gabe arloan aplika daitezkeen gainerako xedapenak:

— 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jarduerei buruzkoa.

— 17/2019 Dekretua, otsailaren 5ekoa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena.

1.2. La presente ordenanza será aplicable en el conjunto de los espacios de uso público (calles, plazas, patios interiores, espacios libres, zonas verdes, etc.), con independencia de su titularidad pública o privada, así como en espacios privados abiertos al público, por lo que resultará de aplicación a:

a) Las terrazas u otros elementos que se indican en la Ordenanza que se instalen en terrenos de uso y dominio público.

b) Las terrazas u otros elementos que se indican en la Ordenanza que se instalen en los espacios de titularidad privada, situados en espacios abiertos y sin restricciones de uso público, cuya actividad incida de forma directa sobre el espacio público o sean adyacentes al mismo, así como los situados en espacios de titularidad privada de uso público.

No perderán la condición de espacios abiertos a estos efectos por disponer de elementos de cierre lateral y/o vertical.

c) Las terrazas u otros elementos que se indican en la Ordenanza anejas a establecimientos públicos de hostelería situadas en el interior de espacios de titularidad privada, con restricciones al paso y al uso público, tales como patios interiores, establecimientos comerciales o recintos descubiertos anexos a una actividad de hostelería cuyo acceso al público se encuentre restringido. Este tipo de terrazas deberán cumplir las condiciones de la normativa reguladora de las actividades con incidencia ambiental y las que correspondan a los efectos al establecimiento de las que formen parte, en especial las reguladoras de la seguridad, aforos y afecciones ambientales de este tipo de establecimientos, y en relación con lo regulado en esta Ordenanza, las condiciones específicas que les afecten y así se indiquen expresamente en la Ordenanza.

Estas terrazas se regirán por las condiciones que se fije en la licencia para el ejercicio de la actividad principal o en la licencia del recinto en el que se encuentran, por las disposiciones de esta Ordenanza que específicamente les resulten de aplicación y sus específicos títulos habilitantes, por las normas urbanísticas y por aquellas otras normas específicas de la actividad de que se trate.

*Artículo 2. Condiciones de instalación.*

2.1. La presente Ordenanza se dicta en virtud de las facultades otorgadas por: artículos 49 y 84 bis1.a) de la Ley de Bases del Régimen Local de 1985, Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas, Real Decreto 1373/2009, de 28 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas, artículo 77 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales de 1986, artículos 41 y 50 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales de 1986 y artículos 1 a 17 del Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales de 1955.

Con carácter general, la regulación de la instalación en la vía pública de terrazas, expositores de productos de venta y otros elementos auxiliares se adecuará al conjunto de las previsiones establecidas en las anteriormente citadas disposiciones y en:

a) Las disposiciones legales, generales y específicas, vigentes en la materia. Entre las disposiciones legales vigentes en la materia en el momento de la formulación de estas Ordenanzas cabe citar, sin perjuicio de su actualización, modificación, derogación, aprobación de nuevas disposiciones posteriores y sin perjuicio del resto de disposiciones aplicables en la materia:

— Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas.

— Decreto 17/2019, de 5 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas.

b) Indarrean den Hirigintza-plangintza.

c) Ordenantza hauek.

2.2. Debekatuta dago saltoki hauei lotutako terrazak jartzea: ikuskizun-aretoak eta zinemak, dantzalekuak, joko-aretoak eta billar-aretoak, txokoak, elkarteak eta gazte-lokalak.

2.3. Erantsita dauden ostalaritza-saltokien baimenei lotuko zaizkie baimenak, halabeharrez. Ezingo da saltoki horietako jarduerarekiko independentea den baimenik eman.

*3. artikulua. Definizioa.*

Jarduera gauzatzeko indarrean dagoen araudiaren arabera irekitzeko lizentzia, aurretiazko komunikazioa edo habilitazio-titulua duen eta publikoari irekita dagoen ostalaritza-jarduera baten osagarri gisa balio duen (batera edo banaka, eta modu iraunkorrean) mahai, aulki, toldo eta behin-behineko instalazio mugikorren multzoari esaten diogu terraza.

Salgai dauden produktuen erakuslekua esaten diogu jarduera gauzatzeko indarrean dagoen araudiaren arabera irekitzeko lizentzia, aurretiazko komunikazioa edo habilitazio-titulua duen jarduera baten osagarri gisa denda baten kanpoan jartzen den behin-behineko elementu mugikorrari, produktu jakin bat nabarmentzea eta bezeroari eskura jartzea helburu duenari.

Elementu osagarritzat hartzen da terraza edo salgai dauden produktuen erakuslekua ez den eta hilabete baino gehiagoko denbora-tartean ostalaritza- edo merkataritza-saltoki baten kanpoaldean jartzen den beste edozein elementu, jarduera gauzatzeko indarrean dagoen araudiaren arabera irekitzeko lizentzia, aurretiazko komunikazioa edo habilitazio-titulua duen jarduera baten osagarri gisa. Definizio horren barruan sartuko lirateke dekorazio-elementuak, elementu ludikoak, jolasarekin lotutakoak...

*4. artikulua. Parametro eta tipologia anitzak.*

2 terraza mota ezartzen dira:

— A motako terraza: mahai, aulki eta behin-behineko elementu mugikorren (eguzkitakoak, manparak, jardinerak...) multzoak osatzen duen instalazioa. Ezarritako ordutegia amaitutakoan bide publikotik kendu behar dira eta lokalaren barrura sartu.

— B motako terraza: mahai, aulki eta behin-behineko elementu mugikorren (eguzkitakoak, manparak, jardinerak...) multzoak eta horiek estaltzeko egitura desmuntagarriak osatzen duten instalazioa. Ezarritako ordutegia amaitutakoan bide publikotik kendu eta lokalaren barrura sartu behar dira, eta/edo bide publikoko baimendutako espazio batean pilatu.

4 mahai mota ezartzen dira:

— 1 motako mahaia: mahai biribila edo karratua, 0,85 m-koa, 4 aulkirekin, 2,00 x 2,00 m-ko gainazala hartzen duena, hau da, 4 m².

— 2 motako mahaia: mahai biribila edo karratua, 0,85 m-koa, 3 aulkirekin, 2,00 x 1,50 m-ko gainazala hartzen duena, hau da, 3 m².

— 3 motako mahaia: mahai biribila edo karratua, 0,85 m-koa, 2 aulkirekin, 2,00 x 1,25 m-ko gainazala hartzen duena, hau da, 2,5 m².

— 4 motako mahaia: mahai biribila edo karratua eta/edo kupela, 0,85 m-koa, aulkirik gabea, 1,60 x 1,60 m-ko gainazala hartzen duena, hau da, 2,5 m².

*5. artikulua. Aurrez lizentzia lortu beharra.*

Bide publikoaren okupazioak eta ustiapenak ohiko erabilera berezien kategoria juridikoan sailkatuta daude; jabetza-eskubiderik gabe eta hirugarrenentzako kalterik gabe ematen dira; eta aurrez udalaren baimena behar da, eta hori ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera emango da.

b) El planeamiento urbanístico vigente.

c) Estas Ordenanzas.

2.2. Queda prohibida la instalación de terrazas vinculadas a los siguientes establecimientos: salas de espectáculos y cines, salas de fiesta, salas de juegos y billares, txokos, sociedades, y locales de jóvenes.

2.3. Las autorizaciones quedarán necesariamente vinculadas a las de los establecimientos hosteleros que se encuentren anejas, sin que se puedan transmitir con independencia de la actividad de esos establecimientos.

*Artículo 3. Definición.*

Se entiende por terraza el conjunto de mesas, sillas, toldos e instalación provisional móvil, que, conjunta o individualmente, y de forma permanente, sirve de complemento a una actividad del tramo de hostelería abierta al público, que disponga de licencia de apertura, comunicación previa o título habilitante conforme a la normativa vigente para el ejercicio de la actividad.

Se entiende por expositor de productos de venta el elemento provisional móvil, que se coloca en el exterior de un comercio como complemento a una actividad que disponga de licencia de apertura, comunicación previa o título habilitante conforme a la normativa vigente para el ejercicio de la actividad, para poder atraer la atención hacia un producto concreto y sea más accesible para el cliente.

Se entiende por elemento auxiliar cualquier elemento que no se considere terraza o expositor de productos de venta, que se coloca en el exterior de un establecimiento de hostelería o comercio, por un plazo superior a un mes, como complemento a una actividad que disponga de licencia de apertura, comunicación previa o título habilitante conforme a la normativa vigente para el ejercicio de la actividad. En esta definición entrarían elementos decorativos, lúdicos, de juego, etc.

*Artículo 4. Diversos parámetros y tipologías.*

Se establecen 2 tipos de terraza:

— Terraza tipo A: instalación compuesta por un conjunto de mesas, sillas y elementos provisionales móviles (sombrillas, mamparas, jardineras, etc.) que una vez finalizado el horario establecido se deben retirar de la vía pública y recogerse en el interior del local.

— Terraza tipo B: instalación compuesta por un conjunto de mesas, sillas, elementos provisionales móviles (sombrillas, mamparas, jardineras, etc.) y estructura para cubrición desmontable y móvil que una vez finalizado el horario establecido se deben retirar de la vía pública para recogerse en el interior del local y/o apilar en un espacio autorizado de la vía pública.

Se establecen 4 tipos de mesa:

— Mesa tipo 1: mesa redonda o cuadrada de 0,85 m, con 4 sillas, que ocupa una superficie de 2,00 x 2,00 m, es decir, 4 m².

— Mesa tipo 2: mesa redonda o cuadrada de 0,85 m, con 3 sillas, que ocupa una superficie de 2,00 x 1,50 m, es decir 3 m².

— Mesa tipo 3: mesa redonda o cuadrada de 0,85 m, con 2 sillas, que ocupa una superficie de 2,00 x 1,25 m, es decir, 2,5 m².

— Mesa tipo 4: mesa redonda o cuadrada y/o kupela de 0,85 m, sin sillas, que ocupa una superficie de 1,60 x 1,60 m, es decir, 2,5 m².

*Artículo 5. Necesidad de obtención de previa licencia.*

Las ocupaciones y aprovechamientos de la vía pública tienen la categoría jurídica de uso común especial; se otorgan salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de tercero; y requieren para su ejercicio licencia previa municipal, que se concederá de acuerdo con lo previsto en la presente ordenanza.

EK\CV GAO-I-2023-02052

Gainera, prekarioko lagapenak izaten dira eta atzera bota daitezke interes publikoko arrazoiengatik, kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik gabe. Partikularrak ez du baimena eskuratzea bermatzen dion eskubiderik, hortaz, baimena ematea hautazkoa da; edonola ere, hartutako ebazpena arrazoitu beharra dago.

Zoru publikoa okupatzeko baimendutako aldiak aldatu egin daitezke hauen ondorioz: turismoarekin, merkataritzarekin edo jaiekin lotutako jarduerak, obrak eta/edo ekitaldi publikoak, Udalak antolatutakoak. Halaber, aldi horiek aldatu egin daitezke beste interesdun batzuek jarduerak egin behar badituzte, eta jarduera horiek administrazio honek baimendu beharreko eskubideekin lotuta daudenean.

Halaber, Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jarduerei buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 29. artikuluaren arabera eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 84 bis.1.a) artikuluaren arabera, terrazen ustiapen-jarduerak hiri-ingurumenean eta segurtasunean duen eragina aintzat hartuta, aire zabalean edo bide publikoan, saltoki nagusi bati lotuta, dauden terrazek edo instalazioek eta jabari pribatuko lurzoruetan daudenek udalak emandako habilitazio-titulua eskuratu behar dute, ondorio horietarako ezarritako udal-araudiaren arabera. Araudi horrek mugatu egin dezake instalazio horien erabilera-ordutegia eta, edozein kasutan, bizilagunei molesta diezaiekeen edozein jarduera.

## II. TITULUA

## TERRAZAK JARTZEA

*6. artikulua. Terrazak jar daitezkeen espazioen izaera eta baldintza orokorrak.*

6.1. Terrazak jartzeko baimena eman daiteke Ordenantza honetako 1.2. artikuluan adierazitako espazioetan:

a) Erabilera eta jabari publikoko lursailak.

b) Jabari pribatuko espazioak, erabilera publikorako mugarik ez duten esparru irekietan kokatuak, horien jarduerak modu zuzenean eragiten badio espazio publikoari, edo alboan badaude; eta erabilera publikoa duten jabari pribatuko espazioetan kokatuta daudenak.

c) Jabari pribatuko espazioen barrualdea, pasatzeko eta erabilera publikorako mugak dituena, esaterako, barruko patioak, merkataritza-saltokiak edo publikoaren sarbidea mugatua duen ostalaritza-jarduera bati lotutako aire zabaleko esparruak, Ordenantza honetan berariaz adierazitako erabakietarako.

Izatezko egoeraren araberakoa eta indarrean dagoen plangintzaren zehaztapenen aplikazioaren araberakoa izango da erabilera publikoaren izaera.

6.2. Bide publikoetan terrazak eta baimendutako gainerako elementu osagarriak jartzean errespetatu egin behar da bide publiko horien ohiko lehentasunezko erabilera eta, ondorioz, aintzat hartu behar dira baldintza orokor hauek:

— Instalazioak ez du oztopatuko oinezkoak edo ibilgailuak pasatzea. Ez dio kalterik eragingo bide publikoaren segurtasunari, eta ez dio eragingo hurbil dauden eraikinen eta lokalen ebakuazioari.

— Irisgarritasunaren oinarrizko baldintzak betetzen dituztela bermatu beharko dute, baita urbanizatutako espazio publikoetara sartzeko eta horiek erabiltzeko bazterketarik ezerako oinarrizko baldintzak ere; hala, ezingo dute oztopatu oinezkoentzako ibilbide irisgarrien baldintza orokorrak betetzea ez eta hiri-inguruneen eta espazio publikoen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak aplikatzetik eratorritako zehaztapenak baldintzatzea ere.

Se entienden, además, otorgadas en precario y son revocables por razones de interés público sin derecho a indemnización. El particular no ostenta derecho alguno a la concesión de la autorización, por lo que su otorgamiento es discrecional, sin perjuicio de la necesaria justificación de la resolución que se adopte.

Los periodos de ocupación de suelo público que pudieran autorizarse podrán verse modificados con ocasión de la realización de actividades turísticas, comerciales o festivas, realización de obras y/o actividades públicas organizadas por el Ayuntamiento; asimismo, podrán verse modificadas si resultase precisa la realización de actividades por otros interesados correspondientes a derechos que ostenten cuya autorización corresponda a esta administración.

Asimismo, en virtud del artículo 29 de la Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas y del artículo 84 bis.1.a) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, atendiendo la incidencia de la actividad de explotación de las terrazas sobre el medio ambiente urbano y la seguridad ciudadana, las terrazas o instalaciones al aire libre o en la vía pública, así como las ubicadas en suelos de dominio privado, anexas a un establecimiento principal deben obtener el correspondiente título habilitante expedido por el municipio conforme a la normativa local establecida al efecto, que puede limitar el horario de uso de estas instalaciones y, en todo caso, la práctica de cualquier actividad que suponga molestias para el vecindario.

## TÍTULO II

## INSTALACIÓN DE TERRAZAS

*Artículo 6. Carácter de los espacios en que se posibilita la instalación y condiciones generales.*

6.1. Se podrá conceder licencia para la instalación de terrazas en los espacios indicados en el artículo 1.2 de esta Ordenanza:

a) Terrenos de uso y dominio público.

b) Espacios de titularidad privada, situados en espacios abiertos y sin restricciones de uso público, cuya actividad incida de forma directa sobre el espacio público o sean adyacentes al mismo, así como los situados en espacios de titularidad privada de uso público.

c) Interior de espacios de titularidad privada, con restricciones al paso y al uso público, tales como patios interiores, establecimientos comerciales o recintos descubiertos anexos a una actividad de hostelería cuyo acceso al público se encuentre restringido, para las determinaciones expresamente señaladas en esta Ordenanza.

La condición de uso público vendrá determinada en función tanto de la situación de hecho, como por aplicación de las determinaciones de planeamiento vigente.

6.2. La colocación de terrazas y resto de elementos auxiliares autorizados en las vías públicas deberá respetar el uso común general preferente de las mismas y, en consecuencia, atender las siguientes condiciones generales:

— La instalación no supondrá obstáculo para el tránsito peatonal o rodado. No podrá perjudicar la seguridad de éste ni representará afecciones a la evacuación de los edificios y locales próximos.

— Deberán garantizar el cumplimiento de las condiciones básicas de accesibilidad y no discriminación para el acceso y utilización de los espacios públicos urbanizados, sin que puedan constituir obstáculos para el cumplimiento de las condiciones generales de los itinerarios peatonales accesibles ni condicionar las determinaciones derivadas de la aplicación de las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos y espacios públicos.

EK\CV GAO-I-2023-02052

— Mantentze-funtzioek eta -lanek bermatuta egon behar dute, baita hauetarako sarbideek ere: zerbitzu publiko guztiak, udal-ekipamenduak eta zerbitzu-erakundeak, ureztatze-ahoak, tapak eta erregistroak.

— Behar adinako distantzia mantendu behar da hiri-altzari, trafiko-seinale, zuhaitz eta argiztapen-euskarriekiko, horien funtzioa bermatzeko eta mantentze-lanak ahalbidetzeko.

*7. artikulua. Irisgarritasun- eta zirkulazio-baldintzak.*

Jabari publikoko eta erabilera publikoko espazioetan terrazak jartzeko, espazio publikoetako irisgarritasunari buruzko araua eta Ordenantza honetako baldintzak bete behar dira.

Irizpide orokor gisa, pasabide libreko zabalera bat ezartzen da oinezkoen zirkulaziorako eta beste bat ibilgailuen zirkulaziorako.

Zabalera libre hori kalkulatzeko orduan, berau mugatzen duten oztopotzat hartuko dira hiri-altzariak, jardinerak, farolak, markesinak, posteak, hesiak eta espaloietan edo horien proiekzio bertikalean egon litekeen beste edozein elementu, alboko beste terraza batzuek hartzen duten espazioa barne.

Eskatzen den pasabide librea zabaldu egin daiteke oinezkoen edo ibilgailuen trafikoarekin lotutako arrazoi justifikatuengatik eta udal-zerbitzuen iritzi arrazoituagatik.

7.1. Oinezkoen zirkulaziorako baldintzak.

Terrazen instalazioek oztoporik gabeko pasabide bat errespetatu behar dute, irisgarritasunari buruzko arauetan ezartzen dena. Hala, irisgarritasunaren oinarrizko baldintzak betetzen dituztela bermatu beharko dute, baita urbanizatutako espazio publikoetara sartzeko eta horiek erabiltzeko bazterketarik ezerako oinarrizko baldintzak ere, eta ezingo dute oztopatu oinezkoentzako ibilbide irisgarrien baldintza orokorrak betetzea.

Irisgarritasunari buruzko arauetan ezarritako betekizun guztiak betetzea posible ez den hiri eremu finkatuetan soluzio alternatiboak baimen daitezke, ahalik eta irisgarritasun handiena bilatuz eta irisgarritasuna ez okerragotzearen irizpideari jarraituz. Terraza jartzeko lizentzian arrazoitu eta baimendu behar dira soluzio horiek.

Horrekin lotuta, terrazak jartzea gaitzen den espazio mota bakoitzerako distantziei eta pasabide libreei buruzko neurriak ezartzen dira, baita hurrengo baldintzak ere:

— Terrazako elementu bakar batek ere ezin du baimendutako eremua gainditu, ezta aurrez eskatutako oztoporik gabeko oinezkoen pasabidea inbaditu ere.

— Oinezkoen erabilerako eremuetan dauden tabernen terrazek eta antzeko instalazioek hartzen duten gainazalak hautemateko modukoa izan behar du, eta saihestu egin behar dira ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzat arrisku edo traba bat eragin dezaketen elementu edo egoerak. Hala, terrazen instalazioek eta antzeko instalazioek ezin diete kalterik eragin lehendik zeuden oinezkoentzako ibilbide irisgarriei, eta ezin dituzte egoera baztertzaileak sortu espazio publiko urbanizatuetara sartu eta horiek erabiltzeko. Ondorio horietarako, aipatutako baldintzak bermatzeko beharrezkoa balitz, terrazaren perimetroa babes-elementuen edo haize-babesen bidez mugatzeko betebeharra ezar dezakete terrazak jartzeko lizentziek.

7.2. Ibilgailuen zirkulaziorako baldintzak.

Terrazen instalazioak oztoporik gabeko pasabide bat errespetatu behar du ibilgailuen, larrialdi-zerbitzuen eta beste zerbitzu batzuen irisgarritasuna bermatzeko. Halaber, eraikinetako atarietarako, saltoki publiko edo pribatuetarako eta eraikinen larrialdi-irteeratarako sarbideak errespetatu behar dira, eta ibilgailuak sartzeko edo irteteko maniobrak egin daitezkeela ziurtatu behar da.

— Deben quedar garantizadas las funciones y labores de mantenimiento, así como el acceso a todos los servicios públicos, equipamientos municipales y a las compañías de servicios, bocas de riego, tapas y registros.

— Deberán respetar una distancia suficiente a los distintos elementos del mobiliario urbano, señales de tráfico, árboles, báculos de alumbrado, que garantice su función y permita las labores de mantenimiento.

*Artículo 7. Condiciones de accesibilidad y circulación.*

La ocupación del dominio público y de los espacios de uso público con terrazas deberá realizarse siguiendo la norma sobre accesibilidad en espacios públicos y a las condiciones de esta Ordenanza.

Se establece, como criterio general, una anchura libre de paso para circulación peatonal y otra para circulación de vehículos.

En el cálculo de esta anchura libre se entenderá como obstáculos que la limitan tanto el mobiliario urbano, como la jardinería, farolas, marquesinas, postes, vallas y cualquier otro elemento que pueda existir sobre las aceras o en su proyección vertical, incluido el espacio ocupado por otras terrazas adyacentes.

Por razones justificadas relacionadas con el tráfico de viandantes o vehículos y a juicio razonado de los servicios municipales, el paso libre exigido podrá ser ampliado.

7.1. Condiciones para la circulación peatonal.

La instalación de terrazas deberá respetar un paso libre de obstáculos, establecido en las normas sobre accesibilidad, garantizado el cumplimiento de las condiciones básicas de accesibilidad y no discriminación para el acceso y utilización de los espacios públicos urbanizados y sin que puedan constituir obstáculos para el cumplimiento de las condiciones generales de los itinerarios peatonales accesibles.

En las zonas urbanas consolidadas en las que no sea posible cumplir con todos los requisitos establecidos en las normas sobre accesibilidad, se podrán autorizar soluciones alternativas, buscando en todo caso la mayor accesibilidad y siguiendo el criterio de no empeoramiento. Dichas soluciones, deberán ser justificadas y autorizadas en la licencia de instalación de la terraza.

A este respecto, se establecen las correspondientes medidas sobre distancias y pasos libres para cada tipología de espacio donde se habilita la instalación de terrazas, así como las siguientes condiciones:

— Ningún elemento de la terraza podrá sobrepasar la zona autorizada, ni invadir el paso peatonal libre de obstáculos anteriormente exigido.

— La superficie ocupada por las terrazas de bares e instalaciones similares existentes en las áreas de uso peatonal deberá ser detectable, evitando cualquier elemento o situación que pueda generar un peligro o impedimento a las personas con discapacidad visual, no pudiendo la instalación de las terrazas e instalaciones similares afectar a los itinerarios peatonales accesibles existentes ni comportar situaciones discriminatorias para el acceso y utilización de los espacios públicos urbanizados. A estos efectos, si resultase necesario para garantizar las indicadas condiciones, las licencias para instalación de terrazas podrán establecer la obligación de deber delimitar su perímetro mediante elementos de protección o cortavientos.

7.2. Condiciones para la circulación de vehículos.

La instalación de terrazas deberá respetar un paso libre de obstáculos que garantice la accesibilidad de vehículos, servicios de emergencias y otros servicios. Así mismo, se debe respetar el acceso a los portales de las fincas, establecimientos públicos o privados, a las salidas de emergencia de los edificios y asegurar las maniobras de entrada o salida de vehículos.

EK\CV GAO-I-2023-02052

*8. artikulua. Baimena ukatzeko arrazoiak.*

Organo eskudunak aukera izango du terrazak eta elementu osagarriak jartzeko baimena ez emateko, interes publikoaren mesedetan, trazatua eta kokapena direla eta, inguruko etxebizitzak 2,5 metrotik beherakoak badira edo 3 metrora baino gutxiagora badaude, bide-segurtasun arrazoiengatik, herri-lanak nahiz establezimendu-dentsitate handia daudelako, edo interes publikoari eragiten dioten eta behar bezala oinarrituta dauden beste arrazoi batzuengatik. Zehazki, arrazoi hauek eman daitezke lizentzia ukatzeko: trazatua, kokapena, bideko segurtasuna, obra publiko edo pribatuak, oinezkoen joan-etorri masiboa, saturazioa, ikusgarritasuna edo irisgarritasuna, edo antzeko beste edozein zirkunstantzia. Honako hauek bermatu ezin direnean ere uka daiteke lizentzia: ingurumenaren babesa; etxeko intimitatearen oinarrizko eskubidea babestea; banakako eta taldeko osasuna eta segurtasuna babestea; pertsonei molesta diezaieketen soinu edo dardara mailak ez sortzea; edo pertsonen osasunerako edo ongizaterako arriskurik ez sortzea.

Organo eskudunak baimenik gabe utz ditzake terrazak estaltzeko egiturak eta/edo elementuak (eguzkitakoak, toldoak...), bideko segurtasunari kalte egiten diotenean (ikusgarritasun-falta...), oinezkoen pasabidea zailtzen dutenean edo eraikinen edo lokalen segurtasunari kalte egiten diotenean (ebakuazio-irteerak...).

*9. artikulua. Ibilgailuak dabiltzan kaleetako espaloietan jarritako instalazioak.*

9.1. Terrazaren azalerak ezingo du gainditu ostatuaren fatxadaren luzera, espazio-beharrengatik alboko etxaurreak okupatzeko baimena eskatu ezean. Horrelakoetan, eraikin horietako establezimenduen adostasuna beharko da, eta inoiz ere ez da izango eskaera egin duen saltokiaren fatxadaren % 100 baino handiagoa.

9.2. 2 metroko pasabidea bermatu behar da beti oinezkoen joan-etorrirako eta etxebizitza nahiz lokalen sarbidea libre uzteko.

9.3. Oinezkoen dentsitatea edo beste arrazoi batzuk tarteko, terraza zintarri parean kokatu behar da pasabidea etxaurre ondoan utzita.

9.4. Segurtasun-arrazoiak direla eta, terraza zintarri parean kokatu beharra badago, zintarriaren eta terrazaren artean gutxienez 30 cm utzi behar dira. Eta bateriako aparkaleku baten ondoan badago, 60 cm-ko tartea utzi behar da. Zintarriaren alboan aparkalekurik ez badago eta ibilgailuak pasatzen badira, alboko babesa jarri behar da. Terraza ezin da galtzadaren beste aldean jarri.

9.5. Ezin dira arkupeak edo estalitako pasabideak okupatu, saltoki batek terraza espaloian jarri ezin duenean salbu; kasu horretan, okupatu ahal izango da, betiere oinezkoentzako 2 m-ko pasabide librea bermatzen bada eta zabaleraren % 50 baino gehiago okupatzen ez bada.

9.6. Terraza bat jartzeko, gutxienez, 3,20 m zabal izan behar du espaloiak.

9.7. Terrazaren zabalerak ezin du izan espaloiaren zabaleraren % 50 baino handiagoa, 4 m-tik gorako zabalera librea (altzariak kontuan hartu gabe) duten espaloietan salbu; kasu horietan, oinezkoentzako 2 m-ko pasabidea bermatu behar da beti fatxadaren alboan.

9.8. Terraza espaloian jartzea posible edo komenigarria ez balitz, aparkaleku-bandan jar liteke.

9.9. Egitura duen estalki bat jarri nahi izanez gero, espaloiaren gutxieneko zabalera libreak (altzariak kontuan hartu gabe) 6 metro baino gehiago izan behar ditu, eta oinezkoentzako 3 metroko ibilbide libre bat bermatu behar da uneoro.

9.10. Saltoki bakoitzeko, gehienez, 14 mahai jar daitezke.

*Artículo 8. Motivos de denegación de la licencia.*

El órgano competente podrá no autorizar la instalación de terrazas y sus elementos auxiliares en aquellos casos que así lo exija el interés público, por razón del trazado, situación, existencia de viviendas a una altura inferior a 2,5 metros o a una distancia inferior a 3 metros, seguridad viaria, obras públicas, densidad de establecimientos o cualesquiera otras circunstancias debidamente motivadas que afecten al interés público. En particular, podrá motivarse la denegación de la licencia por razón de trazado, situación, seguridad vial, obras públicas o privadas, afluencia masiva de peatones, saturación, visibilidad o accesibilidad, o cualesquiera otras circunstancias similares, así como cuando la preservación del medio ambiente, la protección del derecho fundamental a la intimidad domiciliaria, la protección a la salud y a la seguridad individual y colectiva, así como la no generación de niveles sonoros o de vibraciones que puedan ser causa de molestias a las personas o de riesgos para la salud o el bienestar de las mismas, no puedan ser garantizadas.

El órgano competente podrá no autorizar las estructuras y/o elementos (sombrillas, lonas, etc....) para la cubrición de terrazas que supongan perjuicio para la seguridad vial (falta de visibilidad, etc....), que dificulten el tránsito peatonal o que perjudiquen la seguridad de edificios o locales (salidas de evacuación, etc....).

*Artículo 9. Instalaciones en aceras de calles con circulación rodada.*

9.1. El emplazamiento de las terrazas no podrá sobrepasar la longitud de la fachada del establecimiento, salvo que por razones de espacio se solicite la ocupación de fachadas contiguas, en cuyo caso deberán contar con la conformidad de los establecimientos situados en ellas y que en ningún caso será superior al 100 % de la fachada del establecimiento que lo solicita.

9.2. En todos los casos se deberá garantizar un paso de 2 metros para el tránsito peatonal y acceso a viviendas y locales.

9.3. En función de la densidad peatonal u otras razones el emplazamiento de la terraza se situará junto al bordillo permitiendo el paso peatonal junto a las fachadas.

9.4. Por razones de seguridad, si el emplazamiento de la terraza se sitúa junto al bordillo, deberá existir como mínimo una distancia de 30 cm entre el bordillo y las terrazas, y si está situada junto a un aparcamiento en batería, la separación será de 60 cm. En los casos que no haya aparcamiento junto al bordillo y haya circulación rodada, se colocará protección lateral. No se podrá colocar la terraza al otro lado de la calzada.

9.5. No se ocuparán arkupes o zonas de paso cubiertas, salvo que un establecimiento no pueda instalarla en la acera, en cuyo caso se podrán ocupar siempre que se garantice un itinerario peatonal libre de 2 m y siempre que la ocupación no sea superior al 50 % del ancho.

9.6. El ancho mínimo de la acera para instalar una terraza será de 3,20 m.

9.7. El ancho de la terraza nunca será superior al 50 % de la acera, salvo en aceras con una anchura libre (descontando mobiliario) superior a 4 m, garantizando siempre el itinerario peatonal de 2 metros junto a fachada.

9.8. Si no fuera posible o conveniente colocar la terraza en la acera, se podría colocar en banda de aparcamiento.

9.9. Si se pretende colocar una cubrición con estructura, la anchura libre mínima de la acera (descontando mobiliario) deberá ser superior a 6 metros, garantizando en todo momento un itinerario peatonal libre mínimo de 3 metros.

9.10. Por cada establecimiento se podrán instalar como máximo 14 mesas.

EK\CV GAO-I-2023-02052

*10. artikulua. Oinezkoen kaleetako instalazioak.*

10.1. Terrazaren azalerak ezingo du gainditu ostatuaren fatxadaren luzera, espazio-beharrengatik alboko etxaurreak okupatzeko baimena eskatu ezean. Horrelakoetan, eraikin horietako establezimenduen adostasuna beharko da, eta inoiz ere ez da izango eskaera egin duen saltokiaren fatxadaren % 100 baino handiagoa.

10.2. 2 metroko pasabidea bermatu behar da beti oinezkoen joan-etorrirako eta etxebizitza nahiz lokalen sarbidea libre uzteko.

10.3. Oinezkoen dentsitatearen edo beste arrazoi batzuen arabera, terraza urrundu egin behar da, fatxaden albotik oinezkoek pasatu ahal izateko.

10.4. Aintzat hartuko dira baimena emateko garaian ibilgailuen nahiz oinezkoen joan-etorri beharrak. Uneoro 3 metroko zabalera bermatuko da ibilgailuak pasatzeko (salbuespen-kasuetan 2,5 metrokoa izan liteke).

10.5. Kalearen gutxieneko zabalera 4,70 metrokoa denean, parez pare dauden bi terrazak topo egiten badute, udalzerbitzuek erabakiko dute horien banaketa, oinezkoen bidearen trazatuari kalterik eragin gabe.

10.6. Saltoki bakoitzeko, gehienez, 14 mahai jar daitezke.

*11. artikulua. Plaza eta espazio libreetako instalazioak.*

11.1. Terrazak plaza eta espazio libreetan jartzeko eskakizunak kasuan kasuko ezaugarriak aztertuta eta ondorengo baldintzen arabera ebatziko dira:

a) Inguruko etxebizitza eta lokaletarako sarbidea libre utzi behar da, gutxieneko 2 metroko zabalera librearekin.

b) Egoteko erabilera eta oinezkoen zein ibilgailuen zirkulazioa bermatuko dira.

c) Udal-ekipamenduak errespetatuko dira, hala nola lorategiak, haurren parkeak eta hiri-altzariak, oro har; eta gutxienez 1 metroko zabalera librea utziko da.

d) Saltokiak terraza jarri nahi duen plazan edo espazio librean izan behar du fatxada.

e) Terrazaren azalerak ezingo du gainditu ostatuaren fatxadaren luzera, espazio-beharrengatik alboko etxaurreak okupatzeko baimena eskatu ezean. Horrelakoetan, eraikin horietako establezimenduen adostasuna beharko da eta, jabari pribatuko eta erabilera publikoko lurzoruen kasuan, jabari horren titularraren edo titularren adostasuna; eta inoiz ere ez da izango eskaera egin duen saltokiaren fatxadaren % 100 baino handiagoa.

11.2. Ezin dira arkupeak edo estalitako pasabideak okupatu, saltoki batek terraza plazan edo espazio librean jarri ezin duenean salbu; kasu horretan, okupatu ahal izango da, betiere, oinezkoentzako 2 metro-ko pasabide librea bermatzen bada eta zabaleraren % 50 baino gehiago okupatzen ez bada.

11.3. Saltoki bakoitzeko, gehienez, 14 mahai jar daitezke. Terraza kopuruaren eta horien ezaugarrien arabera eta libre dagoen espazioaren arabera, banaketa proportzionala izango da.

Banaketa proportzionala egiteko, aintzat hartuko da saltokiaren barruan dagoen publikoari irekitako espazioa. Kasu guztietan aintzat hartuko da espazioaren urtaroko izaera, eta okupatuko espazioa inoiz ez da izango libre dagoen espazioaren (udal-ekipamenduak, bideak... kontuan hartu gabe) % 25 baino handiagoa.

11.4. Terraza bat baino gehiago dauden hiri eremu homogeneoetan, terraza guztietan altzari berdinak jartzeko eska dezake Udalak. Hala, denak batera eta harmonia estetikoko berariazko baldintzekin jartzea azter dezake. Ondorio horretarako,

*Artículo 10. Instalaciones en calles peatonales.*

10.1. El emplazamiento de las terrazas no podrá sobrepasar la longitud de la fachada del establecimiento, salvo que por razones de espacio se solicite la ocupación de fachadas contiguas, en cuyo caso deberán contar con la conformidad de los establecimientos situados en ellas y que en ningún caso será superior al 100 % de la fachada del establecimiento que lo solicita.

10.2. En todos los casos se deberá garantizar un paso de 2 metros para el tránsito peatonal y acceso a viviendas y locales.

10.3. En función de la densidad peatonal u otras razones, el emplazamiento de la terraza se alejará, permitiendo el paso peatonal junto a las fachadas.

10.4. Se tendrán en cuenta a la hora de otorgar las licencias las necesidades del tránsito tanto rodado como peatonal. Se garantizará permanentemente una anchura suficiente de 3 metros (que excepcionalmente podrá ser de 2,5 metros) para el paso de vehículos.

10.5. Cuando el ancho mínimo de la calle sea de 4,70 metros, si coinciden dos terrazas enfrentadas los servicios municipales decidirán su distribución, garantizando que el itinerario peatonal no se vea afectado en su trazado.

10.6. Por cada establecimiento se podrán instalar como máximo 14 mesas.

*Artículo 11. Instalaciones en plazas y espacios libres.*

11.1. Las solicitudes para la instalación de terrazas en plazas y espacios libres se resolverán según las peculiaridades de cada caso concreto y con sujeción a las siguientes limitaciones generales:

a) Se deberá garantizar el acceso a las viviendas y locales existentes, con un ancho libre de 2 metros.

b) Se garantizará el uso estancial y los tránsitos tanto de peatones como de vehículos.

c) Se respetarán los equipamientos municipales, tales como jardines, parques infantiles y mobiliario urbano en general, y se dejará una anchura libre mínima de 1 metro.

d) El establecimiento debe tener situada su fachada en la plaza o espacio libre donde se pretende instalar la terraza.

